

ALKATEARI

Borja Corominas Fisas Talde Popularreko bozeramaileak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Euskotrenen familia ugarietako deskontuak egiteari buruz.

JUSTIFIKAZIOA

Euskotrenek deskontuak eskaintzen dizkie beren garraio-zerbitzuak erabiltzen dituzten familia ugarietako. Hobari horiek erabili ahal izateko, beharrezkoa da familia ugariaren izaera egiaztatzen duten garraio-txartel pertsonalizatuak izatea, hala nola BAT pertsonalizatua Araban, Barik txartela Bizkaian edo Mugi txartela Gipuzkoan. Txartel horiei esker, automatikoki aplikatu daitezke erabiltzailearen profilari dagozkion deskontuak.

Onura horiek arautzen dituen araudia Familia Ugariak Babesteari buruzko azaroaren 18ko 40/2003 Legea da. Lege horren 12. artikuluan xedatzen denez, eskumena duten herri-administrazioek salbuespen- eta hobari-araubide bat ezarri behar dute familia ugarietako kideentzat, hiriko nahiz hiriarteko garraio publikoen esparruan beren eskumeneko zerbitzuak edo jarduerak emateagatik tasa eta prezioei dagokienez.

1621/2005 Errege Dekretuaren arabera, familia ugarietako kideek eskubidea dute trenbide-garraioan tarifa murriztuak izateko: % 20ko murrizketa kategoriatik orokorrerako eta % 50ekoa kategoriatik berezira.

Hala ere, Donostiako geltoki batzuetan, hala nola Lugaritzen, Añorgan edo Errekalden, non ez dagoen leihatilarik edo enpresako langilerik, txartelak saltzeko makinek ez dituzte deskontu horiek aplikatzen, eta familia ugarietako ezin dituzte lege dagozkien deskontuak baliatu.

Geltoki horietako eta leihatilarik ez duten beste geltoki batzuetako makinak ez daude eguneratuta familia ugariei aitortutako hobariak antzeman eta horiek automatikoki aplikatzeko.

Horregatik, hau da gure

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalbatzak Eusko Jaurlaritzako Mugikortasun Sailari eskatzen dio langilerik edo leihatilarik ez duten Euskotrenen geltokietan, txartelak saltzeko makinak egokitu ditzala, familia ugariek, bidaia-txartelak erosten dituztenean, garraio-tarifen murrizketak baliatu ahal izan ditzaten.

Donostia, 2025eko otsailaren 7a

Borja Corominas Fisas

Alderdi Popularreko Udal Taldeko bozeramailea